



EGUNKARIAren eragile nagusia hil da

Joxemi Zumalabe astearte gauean hil zen Donostian, minbiziak jota, 42 urte zituela

Joxemi Zumalabe EUSKALDUNON EGUNKARIAren sortzailetarikoa, eta Administrazio Kontseiluko kontseilari ordezkari zena hil egin da. 42 urte besterik ez zituen, baina minbizia zuen eta gaitzak mendean hartu du azkenean. Donostian hil zen, Arantzazuko Amaren Erresidentzian, herenegun gauko hamarrek jota, lotan zegoela.

JOXANJEL ALDAI / DONOSTIA


Oso gazte zela, 14 urte zituen, hasi zen 'Zeruko Argia' aldizkarian lanean, gero Donostia utzi eta Bartzelonan izan zen arkitektura ikasketak egiten, eta Euskal Herrira itzulita, 1979an sartu zen buru-belarri 'Zeruko Argian'. Joxemi Zumalabe bera izan zen, gainera, handik lasterrera jaio zen 'Argia' astekariaren bultzatzaile nagusienetarikoa, erredakzio talde sendo eta gaztea sortu eta astekaria modernizatuz.

Sei urte pasa zirenerako jaio zen 'Argia-koen' artean euskarazko egunkaria sortzeko asmoa. Besteak beste, Joxemi Zumalaberen fedea eragindako bultzadak egin zuen posible 1989ko abenduan Egunkaria Sortzen eratuko zuen Durangoko (Bizkaia) bilera. Orduan ere, beste hainbatetan bezala, proiektuak egin eta martxan jartzeko zuen ahalmen ikaragarriari esker, euskal kulturako pertsona ezberdin ugari biltzea lortu zuten Joxemi Zumalabek eta 'Argia' aldizkariako gainontzeko kideek. Bertan sortu ziren oztopo, eztabaida eta gainerakoak gainditu ondoren, EUSKALDUNON EGUNKARIAren sorrera ekarriko zuen Egunkaria Sortzen koordinakunde hark.

1990eko abenduaren 6an EGUNKARIAK argia ikusi zuenetik Joxemi Zumalabe izan da Administrazio Kontseiluko kontseilari ordezkaria. Bidean jarri eta segituan gaixotu zen, ordea. 1991ko otsailean ebakuntza egin zioten. Diagnostikoa: hestegorriko minbizia.

Errekuperazio oso zaila izan zuen, eta medikuek kontrakoa esan arren, lanari ekin zion ahal zuen bezain laster. Gaitzak ordea, aurrera egin zuen, eta joan den udatzen honetan, urri aldera, oinaze handiak izaten hasi eta okerrera egin zuen bere osasun egoerak. Azaroan eritetxean sartu zuten, eta hil haren 20an ebakuntza egin ondoren minbizia oso zabaldua zeukala adierazi zioten medikuek.

Geroztik Donostiako etxean egon da familia eta lagunez babestua. Astearte eguerdian berriro eraman zuten eritetxera, oso ahul zegoela eta odola sartu eta proba batzuk egitera. Gauean hil zen, lotan zegoela, isilik, bere bizitzako 42 urteetan ibili den bezala.



6 Jende gutxi izan du, neuk orain bezala, jendearen maitasunaren adierazle hain argigarriak jasotzeko aukera. Oraintxe «zeure egunkariko langileak» EGUNKARIAren bi urteak direla eta lore sorta bat —oso polita porzierto— bidali didate.

Maitatua sentitzen naiz alde guztietatik eta neure barnean ez da kabitzen horrek sortzen didan poza. Gainezka egiten dit emozioak, eta negarrez irtzen naiz.

Nire bizitzaren kapitalik handiena, nere inguruan sortu zaidan laguntasun oparo hau dela sentitzen dut. Ohar-kabea aberats sentitzen naiz.